

PATUAREN MENPE

Sara Insausti González, 11 urte

Ordizia

1920-IV-20

Eguneroko maitea:

Badakit ez daukazula belarririk niri entzuteko, ez begirik ni ikusteko, ezta sudurrik ni usaintzeko, ez daukazu ahorik ni dastatzeko eta ezta ere eskurik ni ukitzeko, baina espero dut seigarren zentzumen batek lagunduko dizula nire hitzak ulertzen eta era honetan nire egoera apur bat samurtzen.

Berez Ataungo baserri bateko 18 urteko gaztea nauzu. Denek Patxi deitzen didaten arren armada zikin honetan nire berezko izenez hots egiten didate, hau da, Frantzisko.

Izatez tipo itsusi samarra naizela esan daiteke: ile iluna daukat, motz-motza eta betaurreko ziztrin batzuen atzean begi marroiak ezkututzen ditut. Izaeraz lotsatia naiz, baina haserretzen naizenean sutan dagoen sumendia dirudit.

Oraindik aipatu ez badut ere Afrikan aurkitzen naiz, espainiar nazkagarri batzuk behartuta. Hona, Marokora alegia, nire "aberriaren alde borroka-

tzera” ekarri omen naute familia eta Euskal Herria atzean utzita. Etsipenak hartua nago, horregatik ausartu naiz idaztera, hemen beste lagunik ez daukadalako nire sentimenduak azaltzeko. Idazlea ez naizenez eta trakets samar idazten dudanez, utzi egingo zaitut eskua nekatzen ari baitzait.

Patxi

1920-V-1

Badaramat aste bete kontinente honetan eta gurasoen hutsunea sentitzen hasia nago, nire herriko eguraldi hezea, nire mendiak, zelaiak eta nola ez! lagunak... ametsetan eta gogoetan bakarrik sentitu ditzaket. Hona ekarri ninduten eguna gorrotoz gordeko dut neure barrenean.

Egun euritsu bezain tristea izan zen. Banekien nire bila etorriko zirela eta ezingo nuela ihes egin, baina, hala ere, ezustean harrapatu ninduten. Gau hartan afaldu ondoren gurasoekin berriketan ari nintzela atea jo zuten. Nire aita joan zen irekitzera. “Venimos a por vuestro hijo Francisco” esan zuen ahots zatar bezain boteretsu batek. Nire aita buru makur etorri zen eta keinu esanguratsu batekin irten egin behar nuela adierazi zidan. Nire aitaren tristura eta nire amaren negar malkoen artean kalera joan nintzen beste bi militarrekin elkartzera. Espania kamioi batean zeharkatu genuen eta Mediterraneoan igaro ondoren ona heldu ginen. Orain hemen nago, ni bezalako soldadu askorekin batera hemengo herritarrei zoritxarra eragiten.

Patxi

1920-V-14

Gaurkoa gehiegizkoa izan da! Jeneralak janaria harrapatzen aurkitu nau, egun guztian mokadu bat ere probatu gabe eta gainera karga pisutsuak eramaten zigortu nau. Izan ere, hain janari gutxi ematen diguten! Egunean behin baino ez, eta gainera zopa ziztrin bat.

Jada ez naiz lehengoa sentitzen. Armada honek umore guztia lapurtu dit.

Patxi

1920-V-21

Gaur tiro egiten irakasten aritu zaizkigu. Nahiz eta hasieran ez nuen ezer ulertzen, azkenerako ikasi dut, ze erremedio! Orain tiro egiteko gai naiz! Baina panpinei bakarrik noski. Ezingo nioke gizaki bati tiro egin, ez didate beren izaera gaizto eta traketsa kutsatuko, ez diet utziko! Oraindik ere Patxi izaten jarraitu nahi dut, naizen bezalakoa. Ez dut besteen esku utziko nire bizitza, ez naiz hiltzaile nazkagarria bihurtuko. Ez naiz, ez dut horrelakoa izan nahi!

Patxi

1920-V-25

Gaur gauean ezin lokarturik ibili naiz. Nire familia izan dut gogoan. Nola egongo ote diren galdezka aritu naiz neure buruarekin. Eta, gaixotu egin badira? Nola moldatuko ote dira baserriko lanetan? Negar ere egin dudalakoan nago. Ez zait zuzena iruditzen! Ez digute gure familiaren berririk eman

nahi! Hori berri ona bezala hartu behar al nuke? Edo, txarra bezala? Ez dakit zer pentsatu! Bertan burua galduko dudalakoan nago. Gainera nire buruaz beste egitea ere pentsamenduan izan dut.

Ezingo dut berriro irribarre egin. Ez naiz gai izango aurpegi alai bati begiratzeko. Niretzat mundu hau ez da berriz argituko, beti izango da iluna eta tristea.

Patxi

1920-VI-30

Badira aste batzuk idatzi ez dudala. Izan ere, denbora luzea daramat oihal zurien artean bilduta. Bai, bai, ospitale batean nago. Azken aldiz idazteaz bukatutakoan ohiko zaintza zerbitzu bat egitera joan ginen, gogoratzen dudan gauza bakarra bat batean sekulako zarata entzun genuela da. Nonbait lehergailu batek harrapatu gintuen. Hona ekarri ninduten eta hiru astez koma egoeran egon omen naiz. Gerritik gora zauritxo batzuk bakarrik ditut, baina medikuek diotenez, agian ez naiz berriz oinez ibiltzeko gauza izango. Gainera, azkenik amaren eskutitza jaso eta aita hil zaidala jakinarazi dit. Bera ere, lur jota dago, jakina! Azkenean armada honetatik irtetea lortuko dut, baina ez zen hau nik espero nuen irteera! Egoera honetan egotea baino nahiago nuen soldadu traketsa izaten jarraitu. Baina patuak ez ditu gure nahiak betetzen, ez dago aldatzerik, ez dizkigu aukerak ematen.

Izan ere, bizitza horrelakoa da!

Patxi